

## Erakutsi diezadazula dokumentazioa

**A**RGI dago mendiak abentura, poesia eta misteriozko osagai bat agertzen duela zeinari poztasunez lasaitasun, flexibilitate eta inprobisaziozko erizpidez aurre egiten diogun. Horixe da bere erakargarritasunetariko bat, eta ez doa komentatu nahi dudana gaiaren kontra.

Mendizaleak bere ekintzetarako duen eremua zabalagoa da lehenago baino eta datu-kopuru handia erabili dezake gaur egun, informazioa ugaria baita instantzia askotan. Adibidez, esparru lokaleko mendi-gidaliburu eta mapen argitarapena izugarri gehitu da. Aldizkari bikainak daude (alegia, Pyrenaica), ikusgarriak izateaz gain, makina bat informazio kontrastagarri sorterazten dutenak (kasu askotan). Horrek posible egiten du hurbileko mendiei horrenbeste tarterik dedikatu ez dakien, aldizkariaren aintzinako aleek egiten zuten bezala, eta askoz ere espektro ugariagoa barnebiltu daiteke.

Azken finean, mendizaleari (eta klub antolatzaileari) gustatzen zaio epe luzerako bere txangoak eta irtenaldiak ahalik eta informazio gehien erabiliz prestatzea, baina askotan ezin izaten du horrelakorik egin zeren, "ba daude, egon", baina dokumentazioa sakabanaturik egoten bait da, eta oso zaila suertatzen da momentu egokian biltzea.

Honek ez du zentzurik. Mendizaletasunaren arlo askotako berritasun teknikoak (arropen, tresnerian, meteoan, salbamenduan ...) aprobetxatzen direneko aldi honetan ez da logikoa informazioaren teknikan gertatu diren aurrerapenak ahaztea. Gure gizartea ere sartzen ari da informazioaren autopistetan jadanik. Hasi egiten gara berauek erabiltzen lanean eta egunaren beste momentutan. Oso gutxi falta da mendizaletasunean ere sartu dadin informazioa.

Egitez, ematen du ba dagoela halako presa bat informazioaren sistematizazioaz arduratzeko. Sortzen ari dira maila desberdinetan alpinismoari buruzko datu-baseak esplotatzeko eta analitzatzeko proiektuak, eta ekimen aitzindariak abiada osoan ari dira eguneratzen. Suposatzen dut honez gero S.G.I.M.-ek, Serveiko gure lagunek, oso aurreraturik izango dutela beren informatizazio-prozesua. Eta izugarria da benetan zortzimilatakoei buruzko Kartajanariren datu-base sofistikatua (gogoratzen al duzu, Jabi, den dena idazteko makina zaharkitu harekin egiten zenuenean?

Ordua da praktikan jarri dadin E.M.F.-aren dokumentazio-zentrua ezartzeko ideia zaharra. Egokien kontsideratzen den erara, aholkularitza baten bitartez, ordezkari baten bitartez, talde tekniko baten bitartez edo enterpresa pribatu baten kontratazioa dela medio. Baina sortu dadila datu-base bibliografiko exhaustibo bat, oinarrituz, adibidez, Saez eta Gomez Piñeirok eskantitako lanean (eta Pyrenaicaren aurkibide ospetsua ere barnean harturik, noski). Salbatu daitezela, behin betiko, Federakundearen artxibu historikoak, oraindik ere Legazpiko kultur etxean gordeak. Bildu eta ikertzaileen eskuetara ipini daitezela gure mendiei buruz agertzen diren eta agertu diren mapa guztiak. Aztertu daitezela aipamen alpinistikoak dituzten nazioarteko informazio-sareekin konektatzeko posibilitateak. Estudiatu daitezela mendi-aldizkari garrantzizuenetan agertzen den informazioarako ailegabidea eta beronen gurutzamendua.

¿Eta, dokumentazio-unitate hau Urkiolako (eta Atxarteko) Parke Naturalaren harrera-erakinen batetan kokatzeko ideiatz zer? ¿Edo, beren eta gure mendi-errotzapena sakonkiago sentitzen duten udaletariko batek utzitako aretoren batetan izango da?

## Me enseñe la documentación

**E**STA claro que el monte presenta un componente de aventura, poesía y misterio al que nos enfrentamos gozosamente aplicando criterios de calma, flexibilidad e incluso improvisación. Eso es uno de sus atractivos, y no se contradice con el tema que quiero comentar.

El montañero tiene un radio de acción mucho mayor que antaño y hoy puede manejar un volumen grande de datos, porque la información abunda desde muy diversas instancias. Por ejemplo, la publicación de guías y mapas de montaña de ámbito local crece a un ritmo imparable. Existen revistas excelentes (v.g. Pyrenaica) que, además de ser vistosas, proporcionan una gran cantidad de información contrastable (en muchos casos). Eso permite que ya no haya que dedicar tanto espacio a las montañas próximas, como lo hacían los números antiguos de la revista y se puede abarcar un espectro mucho más variado.

En definitiva, al montañero (o al club organizador) le gusta preparar sus excursiones y sus salidas a largo plazo manejando el máximo posible de información, pero muchas veces no puede hacerlo porque "haberlas, haylas", pero la documentación está dispersa y es muy difícil de reunir en el momento oportuno.

Esto no tiene sentido. En una época en la que se aprovechan las novedades técnicas en muchos aspectos del montañismo (en ropa, en equipo, en meteo, en salvamento ...) no es lógico que olvidemos los adelantos en las técnicas de la información. También nuestra sociedad está entrando ya en las autopistas de la información. Empezamos a usarlas en el trabajo y en otros momentos de nuestro día. Tardará muy poco en entrar en el montañismo.

De hecho, parece que hay una cierta prisa en encargarse de la

sistematización de la información. Están surgiendo a varios niveles proyectos de análisis y explotación de bases de datos de alpinismo y las iniciativas pioneras se están actualizando a marchas forzadas. Supongo que a estas alturas el S.G.I.M., los amigos del Servei, tendrán ya muy adelantado su proceso de informatización. Y es impresionante el sofisticado banco de datos ochomilista de Kartajanari (¿te acuerdas, Jabi, cuando lo tenías que hacer todo con aquella vestusta máquina de escribir?).

Es el momento de poner en práctica la vieja idea de establecer el Centro de Documentación de la E.M.F. De la forma que se considere más idónea, por medio de una asesoría, una delegación, un grupo técnico o hasta por la contratación con una empresa privada. Pero que cree una exhaustiva base de datos bibliográfica partiendo, por ejemplo, del trabajo ofrecido por Sáez y Gomez Piñeiro (e incluyendo, desde luego, los famosos Índices de Pyrenaica). Que salve, de una vez por todas, los archivos históricos de la Federación, almacenados todavía en la Casa de Cultura de Legazpia. Que recopile y ponga a disposición de los investigadores todos los mapas que han aparecido y aparecen sobre nuestros montes. Que explore las posibilidades de conexión con redes de información internacionales que incluyan referencias alpinísticas. Que estudie el acceso y el cruce de la información que aparece en las principales revistas periódicas de montaña. Que facilite toda esa documentación ...

¿Qué hay de la sugerencia de ubicar esta unidad de documentación en alguno de los edificios de acogida del Parque Natural de Urkiola (y Atxarte)? ¿O será en locales cedidos por alguno de los ayuntamientos que sienten más a fondo su y nuestra raigambre montañera?

**Txomin Uriarte**